



AGINDUA, ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK ONARTZEN BAITA ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

ORDEN DEL CONSEJERO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE ESTABLECE LA ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL DEL DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA.

Etxebizitza eta Hiri Agenda sailburuaren 2026ko ekainaren 8koa Agindua bidez, hasiera eman zitzaion Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretua egiteko prozedurari, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta aurrekoa aldatzen duen Lehendakariaren uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuaren lehenengo azken xedapenak xedatutakoa betez.

Por Orden del consejero de Vivienda y Agenda Urbana, de 8 de junio de 2026, se dio inicio al procedimiento de elaboración del decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición final primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y el Decreto 36/2024, de 30 de julio, del Lehendakari, que modifica el anterior.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 13. artikulua, uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuan ezarritako aldaketarekin emandako idazketan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari esleitutako eginkizun eta jardun-arloekin bat etorritik, Dekretu-Proiektu bat egin da, prozedura abiarazi zuen Aginduan ezarritako helburuei erantzuteko.

En consonancia con las funciones y áreas de actuación atribuidas al Departamento de Vivienda y Agenda Urbana por el artículo 13 del mencionado Decreto 18/2024, de 23 de junio, en la redacción dada con la modificación establecida en el Decreto 36/2024, de 30 de julio, se ha elaborado un Proyecto de Decreto que intenta dar respuesta a los objetivos establecidos en la Orden por la que se dio inicio al procedimiento.

Agindu horretan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari eman zaio Dekretu-Proiektua izapidetzeko ardura. Zerbitzu Zuzendaritzak ele bieran idatzi du testua, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

En la citada orden se ha encomendado la tramitación del Proyecto de Decreto a la Dirección de Servicios del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana. Dicha Dirección de Servicios ha redactado el texto de forma bilingüe, de conformidad con lo establecido en el artículo 14 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración





I
Horregatik guztiatik, prestatu den
dekretu-proiektuaren testua ikusirik, hau

de las Disposiciones de Carácter
General.

Por todo ello, visto el texto del proyecto
de Decreto elaborado,

EBAZTEN DUT:**RESUELVO:**

Lehena.- Onartzea Etxebizitza eta Hiri
Agenda Sailaren egitura organikoa eta
funtzionala ezartzen duen proiektu-
dekretua, agindu honen eranskinean
jasotako baldintzetan.

Primero.- Aprobar el Proyecto de decreto
por el que se establece la estructura
orgánica y funcional del Departamento de
Vivienda y Agenda Urbana, en los
términos que constan como anexo a la
presente Orden.

Bigarrena.- Dekretu-proiektuaren
prozedura izapidetzen jarraitzeko
agintzea, prozedura hasteko aginduan
eta abenduaren 22ko 6/2022 Legean
ezarritako izapideei jarraikiz (6/2022
Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen
Orokorrak Egiteko Prozedurarena).

Segundo.- Ordenar la continuación de la
instrucción del procedimiento de
elaboración del proyecto de Decreto de
conformidad con los trámites
establecidos en la Orden de inicio y en la
Ley 6/2022, de 30 de junio, del
Procedimiento de Elaboración de las
Disposiciones de Carácter General.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Etxebizitza eta Hiri Agendako saiburua
El Consejero de Vivienda y Agenda Urbana
DENIS ITXASO GONZÁLEZ



XXX/2026 DEKRETUA, XXXXXaren XX(e)koa, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (zeina uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuaren bidez aldatu baitzen) egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari 13. artikuluan:

- a) Lurralde-antolamendua.
- b) Hiri-agenda.
- c) Lurzorua eta hirigintza.
- d) Etxebizitza; etxebizitzari lotutako lurzorua eta hirigintza.
- e) Arkitektura, eraikingintza, jasangarritasuna eta kalitatea eraikuntzan.
- f) Irisgarritasuna sustatzea.
- g) Kartografia eta informazio geografikoa antolatzea.
- h) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- i) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak.

Era berean, dekretu horrek Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari atxikitzen dizkio «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (Visesa)» eta «Alokabide SA» sozietate publikoak.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen duenez, sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lehendakariari aurkeztuko dizkiote, 2024ko urriaren 31 baino lehen, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Agindu hori betetzeko, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, abenduaren 19an; ondoren, dekretu horren lehenengo huts-zuzenketa egiteko, otsailaren 25eko 51/2025 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2025eko martxoaren 7an.



Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen hasierako dekretua onartu zenetik hona, agerian geratu da ezinbestekoa dela egokitzapen jakin batzuk egitea aipatutako sailaren hainbat arlotan eskumen- eta funtzio-arloetan, administrazio-kudeaketa eraginkorragoa, efizienteagoa eta egokiagoa optimizatu eta bermatzeko, bakoitzak bere eginkizunak betetzean.

Ondorioz, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren proposamenez, lehendakariak aurrez onartuta, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko XXXXXXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran gaia onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA ANTOLAKETA OROKORRA

1. artikulua. – Egitekoak, eskumenak eta jardun-arloak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 13. artikulua araberako, arlo hauetan beteko ditu bere egitekoak Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenen barruan:

- a) Lurralde-antolamendua.
- b) Hiri-agenda.
- c) Lurzorua eta hirigintza.
- d) Etxebizitza; etxebizitzari lotutako lurzorua eta hirigintza.
- e) Arkitektura, eraikuntza, jasangarritasuna eta kalitatea eraikuntzan.
- f) Irisingarritasuna sustatzea.
- g) Kartografia eta informazio geografikoa antolatzea.
- h) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeak eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- i) Legeak eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak.



2. artikulua. – Egitura orokorra.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako gaiei buruzko eskumenak baliatzeko, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak egitura orokor hau hartuko du:

- a) Organo zentralak.
- b) Organo periferikoak.
- c) Kide anitzeko organoak.
- d) Sailari atxikitako sektore publikoko entitateak.

2.– Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren mende daude, organo gorena den aldetik, organo zentral hauek:

- a) Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetza.
 - 1.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- b) Etxebizitza Sailburuordetza.
 - 1.– Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza.
 - 2. Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.
 - 3. Auzoak Birgaitzeko eta Berroneratzeko Zuzendaritza.
- c) Zerbitzu Zuzendaritza.
- d) Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.

3.– Lurralde historiko bakoitzean, Etxebizitzako lurralde-ordezkaritza bat egongo da. Organo periferiko horren buru lurralde-ordezkaritza bat egongo da, organikoki Etxebizitzako sailburuordearen mende eta funtzionalki sailburuordetza horretako zuzendarien mende.

4.– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari atxikita daude, sorrera-arauetan aurreikusitakoaren arabera, kide anitzeko organo hauek, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan beharko dutenak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea, maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusia eta irailaren 9ko 157/2008 Dekretuak arautua.
- b) Lurralde Politikarako Aholku Batzordea, maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusia eta urtarrilaren 15eko 7/2008 Dekretuak arautua.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Informazio Geografikoa Koordinatzeko Batzordea, maiatzaren 26ko 69/2020 Dekretuak arautua.



- d) Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua, abenduaren 4ko 20/1997 Legearen bidez sortua.
- e) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko lurralde-epaimahaiak, azaroaren 20ko 8/1987 Legearen bidez sortuak, eta Euskadiko Balorazio Batzorde Teknikoa.
- f) Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak sortua eta ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak arautua.

5.– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari atxikita daude Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate hauek:

- a) «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA» (Visesa).
- b) «Alokabide SA».

II. KAPITULUA

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILEKO SAILBURUA ETA GOI-KARGUDUNAK

3. artikulua. – Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua.

1.– Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuari eskumen hauek dagozkio: batetik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan finkaturiko eskumenak baliatzea, eta, bestetik, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloetan indarrean dauden legeek esleitzen dizkietenak, betiere saileko beste organoren bati esleitu ez bazaizkio, dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorritik –18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen–.

2.– Saileko organo gorena denez, bera arduratuko da saileko organo guztien eta bertako jardueraren guztien zuzendaritzaz, koordinazioaz eta kontrolaz.



3.– Era berean, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuari dagozkio egiteko hauek:

- a) Sailaren politiken helburu estrategikoak definitzea, gobernu-programan definitutako estrategia-lerroen eta programa-konpromisoen esparruan, eta lortutako gizarte-inpaktuaren analisia egitea.
- b) Saileko organoen artean eskudantziei buruz sortzen diren gatazkak ebaztea, eta beste sail eta organismo batzuekiko eskumen-arazoak planteatzea.
- c) Saileko organismo edo agintarien ebazpenen aurka aurkeztutako errekurtsioak ebaztea, non eta beste organo baten eskumena ez diren.
- d) Gobernu Kontseiluaren aurretiazko baimenetik kanpo dauden hitzarmen eta protokolo orokorrak baimentzea, sailari dagozkion gaietan, eta horiek sinatzea.
- e) Sailaren milioi bat eurotik gorako gastuak baimentzea, gastu horiek ez badira Zerbitzuen zuzendariak kontratazio-organo gisa jarduten duen kontratazio-espedienteen ondorio, ez eta nahitaezko desjabetze-prozeduren ondorio ere. Hori guztia, Gobernu Kontseiluaren eskumenei kalterik eragin gabe.
- f) Sailaren kontratazio-organo gisa jardutea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua bost milioi eurotik gorakoa duten kontratuetan. Era berean, eta baldintza beretan, sailburuaren eskumena izango da bitarteko propioentzako mandatuak egitea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitakoari jarraituz.
- g) Ondare-erreklamazioko prozedurak hasi eta ebaztea, eta ofizioz berrikusteko eta kaltegarritzat jotzeko prozedurak hasi eta ebaztea, bere sailaren arloetan.
- h) Bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuen deklarazioa hasi eta ebaztea, Etxebizitza Eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- i) Hirigintza-plangintza garatzeko hirigintza-antolamenduko planak onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari badagozkio.
- j) Planak, programak eta jarduera esanguratsuak onartzea, Gobernu Kontseiluak onartu behar dituenak izan ezik.



4. artikulua. – Zuzendaritza Kontseilua.

Sailburua buru dela, zuzendaritza-kontseilu bat dago, hari laguntzeko sailaren politika orokorra planifikatzen eta koordinatzen. Kontseilu horretako partaide izango dira sailburuordeak, Zerbitzuen zuzendaria eta Kabinete eta Komunikazio zuzendaria, bai eta, aztertu beharreko gaien arabera, sailburuak izendatzen dituen beste pertsona batzuk ere.

5. artikulua. – Sailburuordeak.

Sailburuordeei dagokie, beren eskumenen esparruan eta sailburuaren mende zuzenean eta hierarkian, eskudantzia orokor hauek baliatzea:

- a) Sailburuordetzaren jardunak planifikatu, zuzendu, koordinatu, bultzatu eta gainbegiratzea, bai eta zuzendaritzenak eta sailburuordetzaren mendeko gainerako organo eta administrazio-unitateenak ere, horretarako behar diren jarraibideak eta zerbitzu-aginduak emanez.
- b) Beren arlo funtzionaletako jarduera-politikak definitu, landu eta sailburuari proposatzea, Jaurlaritzaren strategiaren arabera sailburuordetzari esleitutako helburu estrategikoak garatzea eta lortutako gizarte-inpaktua neurtzea.
- c) Sailburuordetzaren barruan, baliabide materialen eta giza baliabideen beharrak definitzea, aurrekontuen aurreproiektua egiteko.
- d) Xedapen orokorren proiektuak, planak, programak eta jarduera esanguratsuak sustatzea.
- e) Oso astuntzat tipifikatutako zehapenak ezartzea dagokien zehapen-espedienteak hasi eta ebaztea.
- f) Sailburuordetzaren mendeko zuzendariak emandako ebazpenen aurka jarritako errekurtsuak ebaztea.
- g) Beren jardun-eremuan izapidetutako nahitaezko desjabetzeen gastuak baimentzea, zenbatekoa edozein dela ere.



- h) Sailburuordetzak eta haren zuzendaritzek ordezkaritza eraginkor eta koordinatua izan dezatela zaintzea, Europako eta nazioarteko proiektu, sare, elkarte, organismo eta erakundeetan.
- i) Beren eskumeneko arloetan zerbitzu- eta lan-hizkuntza euskara izan dadila bultzatzea, Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoarekin bat.
- j) Beren gain hartzea, beren eskumeneko esparruetan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko erantzukizuna, bat etorritz Gobernu Kontseiluak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean ezarritakoarekin.
- k) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak agintzen dien beste edozein egiteko, edo, orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailburuordeei esleitzen zaizkien egiteko komunak.

6. artikulua. – Zuzendariak.

1.– Saileko zuzendaritza bakoitzerako berariaz jasotako egitekoez gain, zuzendaritza bakoitzari egiteko hauek dagozkio, bere eskumen-esparruaren barruan eta dagokion sailburuordearen mende zuzenean eta hierarkian:

- a) Bere jardun-arloei esleitutako kudeaketa publikoko politikak garatzea eta zuzendaritzaren arlo funtzionaltako politika-tresnak garatu eta aplikatzea.
- b) Xedapen orokorren proiektuak, planak, programak eta jarduera esanguratsuak prestatu eta izapidetzea bere eskumeneko gaitan.
- c) Zuzendaritzari dagozkion gaitan, hitzarmenak, protokolo orokorrak eta beste administrazio batzuekin eta gainerako pertsona publiko edo pribatuekin lankidetzan aritzeko bestelako tresnak negoziatu, landu eta izapidetzea, eta horiek gauzatu, jarraitu eta ebaluatzeaz arduratzea.
- d) Dirulaguntzak emateko antolaketa proposatzea, haiek arautzen dituzten dokumentu eta tresna juridiko eta ekonomikoak lantzea, eta horretarako izapidetza, kudeaketaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzea.
- e) Zuzendaritzaren tasen eta prezio publikoen zenbatekoa proposatzea eta, hala badagokio, likidazioa egitea.



- f) Kontratazioaren arloan, kontratazio-espedienteetan memoriak eta oinarri teknikoen pleguak idaztea, kontratuak behar bezala egiten direla kontrolatzea eta horien jarraipena egitea eta obra-ziurtagiriak onartzea dagokie.
- g) Publizitate aktiboa bultzatzea eta informazio publikoa eskuratzeko eta berrerabiltzeko eskaerak ebatzea, Zerbitzu Zuzendaritzarekin koordinatuta, arlo hauetan: gardentasuna, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, datu publikoak irekitzea eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzea.
- h) Errekurtsoak ebatzea, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan.
- i) Zehatzeko ahala baliatzea bere eskumeneko eremuan, aplikatu beharreko legeriari jarraituz arintzat eta astuntzat jotzen diren falten kasuan.
- j) Oro har, zuzendaritzaren arlo funtzionaletako irizpen, txosten eta azterlanak egitea.

2.– Zuzendariei dagokie:

- a) Zuzendaritzako barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, jarduerak eta ardurak esleituz, lorpenak kontrolatuz eta kudeaketan beharrezkoak diren zuzenketak ezarri, organo eskudunek ezarritako arauen arabera.
- b) Zuzendaritzaren jarduerak programatu, zuzendu, bultzatu, koordinatu eta gainbegiratzea, goragoko organoak emandako jarraibideen arabera.
- c) Datu pertsonalak babestearen arloan, zuzendaritzako tratamenduen arduradun gisa dagozkien betebeharrak betetzen direla bermatzea.
- d) Indarrean dagoen Euskara Normalizatzeko Planaren helburuak definitzea berari dagokion eremuan, eta helburu horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea, euskararen kudeaketa integratua eginez bere zuzendaritzako zerbitzuekin batera. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezartzea eta horien jarraipena egitea zuzendaritzaren jardun-esparruetan. Hori guztia Zerbitzu Zuzendaritzak koordinatuta eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko helburuak definitzea nork bere jardun-alorrean, eta helburu horiek lortzeko ekintzak eta ekimenak gauzatu eta ebaluatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kudeaketa integratua eginez. Hori guztia Zerbitzu Zuzendaritzak koordinatuta eta Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan.



- f) Bere eskumeneko eremuetan dagozkion ebazpenak ematea, eta goragoko organoei ebazpen-proposamenak aurkeztea, hala dagokionean.
- g) Goragoko organoei proposamenak egitea, bere eskumeneko gaietan.
- h) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak agintzen dien beste edozein egiteko, edo, orokorrean, Administrazioko zuzendariei esleitzen zaizkien egiteko komunak.

3.– Zuzendaritzetako aholkularitza juridikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikuluan jasotako eginkizunak beteko dituzte, d), e) eta f) apartatuetakoak izan ezik, horiek Zerbitzu Zuzendaritzaren Zerbitzu Juridikoari baitagozkio.

III. KAPITULUA

SAILEKO ORGANO HORIZONTALAK

7. artikulua. – Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari esleitutako eskudantzia-eremuaren barruan, eta zuzenean eta hierarkian Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren mende, jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea:

- a) Ekonomia eta aurrekontua.
- b) Pertsonak, euskara eta berdintasuna.
- c) Juridiko-administratiboa.
- d) Kontratazioa.
- e) Herritarrak eta berrikuntza.
- f) Informazio- eta estatistika-sistemak.
- g) Baliabide orokorrak, antolamendua eta informatika.

2.– Horretarako, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak agintzen dizkion beste egiteko batzuez gain, edo, orokorrean, saileko zuzendaritzari esleitzen zaizkien egiteko komunez gain, eskumen hauek dagozkio:

a) Sailaren jardura ekonomikoa planifikatu eta kudeatzea, aurrekontua exekutatzeko faseak izapidetuz. Sailaren aurrekontu-aurreproiektua egitea eta haren jarraipena eta aldaketak egitea, eta sailari atxikitako administrazio instituzionaleko eta sektore publikoko entitateen aurrekontu-proiektuak koordinatzea eta horiek sailaren aurrekontuarekin bateratzea.

Arlo horretan, Zerbitzuen zuzendariari dagokio sailaren milioi bat eurotik beherako gastuak baimentzea, nahitaezko desjabetzei dagozkienak izan ezik, horiek sailburuordei baitagozkie. Horrek ez du eragotziko kontratazioari lotutako gastuei aplikatu beharreko araudia betetzea, artikulua honen 4. apartatua jasotakoa.

Era berean, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio sailean sortzen diren gaiei buruzko azterlanak eta txostenak egitea, bereziki gai ekonomikoei buruzkoak, bai eta sailaren jardura ekonomikorako ildoak planifikatu eta programatzea ere, beste sail edo administrazio batzuek egiten dituzten eta eragin ekonomikoa duten planen prestakuntza-prozesuetan, baldin eta beste zuzendaritza batzuei esleitu ez bazaizkie.

b) Hiri-errentamenduen fidantzen itundutako gordailutze-araubide bereziaren eskabideak izapidetu eta kudeatzea, itundutako araubide berezi horretan sartutako errentamendu-kontratuen erregistroa barne.

c) Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19. artikuluan eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusitako egitekoak betetzea, eta sailari atxikitako giza baliabideak administratzea.

d) Berdintasun Unitatearen jarduerak zuzentzea eta, gainerako zuzendaritzekin eta sailari atxikitako organoekin eta administrazio instituzionaleko entitateekin batera, sustapen- eta koordinazio-lana egitea eta lankidetzan jardutea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean aurreikusitako neurriak gauzatzea bultzatzeko.

e) Sailaren Segurtasun eta Osasun Unitatearen jardunak zuzentzea, betiere eragotzi gabe Prebentzio Zerbitzuak bere eskudantziak betetzea.



- f) Jaurlaritzako gainerako sailekin administrazio-harremanak izatea.
- g) Zerbitzu Zuzendaritzaren aholkularitza juridikoak honako hauek garatzea: 6.3 artikulua saileko aholkularitza juridikoei aitortzen dizkien egitekoen gainera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikularen d), e) eta f) apartatuetan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42. artikuluan jasotakoak. Txosten juridikoak egiteaz arduratuko da, sailaren xedapen arauemaileak, hitzarmen eta protokolo orokorrak eta planak, programak eta jardura esanguratsuak egiteko prozeduran. Era berean, ondare-erreklamazioko, ofiziozko berrikuspeneko eta kaltegarritasun-deklarazioko prozedurak izapidetuko ditu, sailaren arloetan.
- h) Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaizkion sailaren gaiak izapidetzea, bai eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko xedapenak eta administrazio-egintzak ere.
- i) Jurisdikzio-prozeduren eta, hala badagokio, horietan emandako ebazpenen jarraipena eta kontrola egitea, eta sailak parte hartzen duen gaietan Auzibide Zuzendaritzarekin harremanetan jartzea.
- j) Sailaren eskumenekoak diren kontratazio-espedienteak zuzendu, koordinatu eta izapidetzea, bai eta sailaren eremuan kontratazio elektronikoaren prozedurak eta zerbitzuak kudeatu eta hedatzea ere.
- k) Proposamenak lantzea saileko zerbitzuen eta sailean erabiltzen diren lan-sistemen eta -metodoen barne-antolaketaz, arrazionalizazioaz, informazio-sistemez, administrazio digitalaz eta informatizazioaz, saileko gainerako organoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunekin batera koordinatuta.
- l) Datu pertsonalen pribatutasun-neurrien arduradun gisa dagozkion egitekoak betetzea.
- m) Sailaren jarduketak bultzatzea eta Eusko Jaurlaritzaren esparru orokorreko proiektuak koordinatzea sailean, gai hauetan: kalitatea eta etengabeko hobekuntza, herritarrentzako arreta, administrazio elektronikoa eta zerbitzu digitalak, datuen eta informazioaren gobernantza, berrikuntza, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu ona.



n) Erregistro Orokorra, Artxiboa eta saileko gainerako dokumentazio-zentroak kudeatzea.

ñ) Saileko egoitzetako barne-araubidea zaindu eta babestea, eta sailari atxikitako ondarea eta ekipamendua administratu eta kontserbatzea.

o) Herritarrentzako informazio- eta arreta-zerbitzuen funtzionamendua kudeatzea (2. eta 3. mailak) eta Zuzenean – Herritarrentzako Arreta Zerbitzuarekiko harremanak antolatzea, sailaren jardun-eremuetan dituzten eskubide eta betebeharrei buruz herritarrek egindako iradokizun, kexa eta erreklamazioen kudeaketaren jarraipena eginez eta koordinatuz.

p) Informazioaren argitaratze aktiboa, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatuz egindako eskaerei ematen zaizkien erantzunak, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeko eta sailaren datu publikoak modu irekian eskaintzeko lana koordinatu eta horien guztien jarraipena egitea, betiere gardentasunaren eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen politikarekiko koherentziaz.

q) Sailaren Estatistika Plana lantzea, eta Euskal Estatistika Erakundearekin batera lan egitea Euskal Estatistika Plana eta urteko estatistika-programak eratzeko lanetan. Era berean, sailaren berariazko estatistika-organoari esleitutako eskumenak eta ahalmenak baliatuko ditu Zerbitzu Zuzendaritzak, eta laguntza teknikoa emango dio saileko edozein organori saileko estatistikekin lotutako gaietan.

r) Euskara Unitatearen bidez eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidalerroei jarraituz, saileko zuzendaritzek politika publikoen garapenean eta sailaren ohiko jardunean euskararen erabilera normalizatzeko egiten duten lana koordinatu eta dinamizatzea.

s) Saileko zerbitzu orokorrak antolatu eta administratzea, sailburuordetza eta zuzendaritzen lan-sistema eta -metodoak koordinatzea, eta saileko administrazio-unitateen banaketa espaziala eta ekipamendu materiala antolatzea, hargatik eragotzi gabe Ogasun eta Finantza Sailari esleitutako eskumenak.

Halaber, Sailaren eskumeneakoak diren gaiak koordinatzeko neurriak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Europar Batasuneko araudia eta politikak lantzeko eta aplikatzeko izan beharreko esku-hartzea garatu ahal izateko, indarrean dauden arauak betez. Horren haritik, saileko organoen eta Europar



Batasuneko erakundeen arteko gaiak eta harremanak bideratuko ditu, Jaurlaritzako Lehendakartzaren organo eskudunaren bitartez.

t) Irailaren 25eko 135/2018 Dekretuaren 9. artikuluan sailari esleitutako argitaratze-egitekoak betetzea –135/2018 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen argitaratze-jarduerari buruzkoa–.

3.– Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak hamahirugarren xedapen gehigarriaren hirugarren apartatua ezartzen duena aplikatuz –18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen–, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzan integratzen da iraungitako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren berariazko estatistika-organoa, eta, aurrerantzean, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren berariazko estatistika-organoa izango da.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren berariazko estatistika-organoa kide bakarreko organoa da, eta sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren mende dago zuzenean. Bere eskumenen ondorioetarako, I. motakoa izango da. Ondorioz, Jaurlaritzako Sailen Estatistikarako Organo Bereziak arautzen dituen 180/1993 Dekretuak eta, zehazki, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren berariazko estatistika-organoa sortu eta haren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen irailaren 14ko 207/2021 Dekretuaren 3. artikulua mota horretako estatistika-organoei ematen dizkien eskumenak eta ahalmenak izango ditu eta horiek baliatuko ditu.

4.– Zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organoa izango da, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua bost milioi eurotik gorakoa ez duten kontratuetan; halaber, eskuduna izango da, baldintza beretan, bitarteko propioentzako mandatuak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitakoaren arabera. Egiteko horien barruan, hari dagokio, muga berarekin, behar diren gastuak baimentzea.

Sailaren kontratazio-organoak sailaren Kontratazio Mahaiaren laguntza izango du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako eginkizunak beteko ditu.



5.– Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 129.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Zerbitzuen zuzendaria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Gobernantza Publikoaren Sailarteko Batzordeko kidea, eta haren ordezkoa Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari proposatuko zaio, sailburuaren agindu baten bidez.

8. artikulua. – Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.

Egiteko hauek dagozkio Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari, organikoki sailburuaren mende dela, dekretu honek oro har esleitzen dizkionez gain:

- a) Sailburuari laguntzea bere egitekoak betetzen, bai eta bere agendaren plangintza eta jarraipena egitea ere.
- b) Sailaren jardun-eremuei lotutako gobernu-programaren helburuak, legegintza-egutegia eta plan eta programen egutegia bultzatu, zuzendu eta koordinatzea, bai eta horien betetze-mailaren ebaluazioa koordinatzea ere.
- c) Eusko Legebiltzarrarekiko, Arartekoarekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanak bideratzea, hargatik eragotzi gabe Lehendakaritzari dagozkion eskumenak.
- d) Sailaren ekitaldi publiko eta ofizialak antolatzea.
- e) Sailaren jardun-arloei buruzko informazio orokorra herritarrei emateko lanak koordinatzea, eta sailaren jardun-arloen inguruko kexak eta iradokizunak jasotzea.
- f) Sailaren argitalpenak kudeatu eta banatzea, hargatik eragotzi gabe Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagozkion eskudantziak.
- g) Sailak komunikabide sozialekin dituen harremanak zuzentzea, sailari lotutako jarduerak, erabakiak eta politikak hedatzen eta zabaltzen laguntzeko.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren komunikazio-politika diseinatu eta gauzatzea. Jardun-arloko informazio- eta publizitate-irizpideak eta -politikak ezartzea.
- i) Sailaren ekintzen informazio-estaldura egokia ziurtatzea.



- j) Sailaren ordezkari gisa parte hartzea Eusko Jaurlaritzaren informazio- edo publizitate-ekintza koordinatzen duten sailarteko eta erakundearteko organoetan.
- k) Sailaren publizitate-kanpainak eta gizartea sentsibilizatzeko neurriak koordinatzea.
- l) Komunikatuak, erreferentziak eta prentsa-oharrak egitea, bai eta azterlanak eta txostenak ere, eskumen-arloko gaurkotasunak komunikabideetan duen islari buruz.
- m) Etxebizitzaren arloko politika publikoen ebaluazioa koordinatzea eta haren kudeaketa operatiboa gauzatzea, herritarren parte-hartzea sustatuz.
- n) Etxebizitzaren eta hiri-agendaren arloko estatistikak, txostenak, azterlanak eta analisiak kudeatzea eta koordinatzea.
- ñ) Politika publikoek etxebizitza-politikaren helburuak lortzean duten eragina aztertzea, eta, bereziki, etxebizitzak arrazoizko prezioan eskaintzea bultzatzeko programek duten eragina.
- o) Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak dagokion jardun-eremuan duen eragin ekonomiko eta sektorialari buruzko azterlan, txosten eta argitalpenak egitea, politika eraginkor eta koherentea ahalbidetzeko.
- p) Zerbitzu Zuzendaritzari proposatzea Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren arloetako eragiketak sar ditzala Estatistika Planean, eta arlo horietako txostenak eta azterlanak egitea.

IV. KAPITULUA

SAILBURUORDETZAK ETA ZUZENDARITZAK

1. ATALA

LURRALDE PLANGINTZAREN ETA HIRI AGENDAREN SAILBURUORDETTZA

9. artikulua.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetza.

1.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzak jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzen ditu:

- a) Hiri-agenda, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan.



b) Lurraldearen eta paisaiaren antolamendua, lurralde-plangintza estrategikoaren esparruan.

c) Lurralde-plangintzaren zehaztapenak garatzen dituen hirigintza-antolamendua, hura onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari badagokio.

d) Lurralde-informazioa.

e) Lurzorua eta hirigintza.

2.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzak eskudantzia hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikulua oro har esleitzen dizkionez gain:

a) Hiri-agendaren ezarpena, ebaluazioa, monitorizazioa eta jarraipena sustatu eta bultzatzea.

b) Lurralde-antolamenduko tresnen prestaketa eta izapidetzea sustatu eta bultzatzea.

c) Sailburuari helaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak onartu behar dituen hirigintza-antolamenduko tresnak, behin betiko onar ditzan, bai eta lurralde-plangintzako zehaztapenak garatzen dituztenak ere.

d) Lurralde-informazioa sustatzea tresna estrategikoen bidez, hala nola Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren bidez eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko oinarrizko kartografia ofizialaren bidez.

3.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzaren mende dago, hierarkikoki, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

10. artikulua. – Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

1.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak sailburuordetzaren jardun-arloetan garatzen ditu bere egitekoak.

2.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak egiteko hauek izango ditu, dekretu honen 6. artikulua oro har esleitzen dizkionez gain:

a) Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda ezartzeko, monitorizatzeko, ebaluatzeko eta haren jarraipena egiteko beharrezkoak diren tresnak sustatu, landu eta izapidetzea.



b) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planeko (ZTBP) Hiri Habitataren (hiri jasangarriak) pilotaje-taldea zuzendu eta koordinatzea.

c) Zuzendaritzaren eskumenekin zerikusia duten autonomia-, estatu- edo nazioarte-mailako foro, sare, organismo eta lantaldeetan parte hartzea.

3.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari dagokio, halaber, lurralde-plangintzaren esparruan, hauek egitea:

a) Lurralde-antolamenduko tresnak sustatu, landu eta izapidetzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) esparruan, hargatik eragotzi gabe Administrazioioko beste organo batzuei esleitutako eskumenak.

b) Paisaiaren antolamendua eta babesa sustatzea, lurralde-antolamenduko tresnen eremuan.

c) Hirigintza-antolamenduko tresnak izapidetzea, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek badu horiek onartzeko eskumena, bai eta lurralde-plangintzako zehaztapenak garatzen dituztenak ere.

d) Lurralde-antolamenduko eta hirigintza-antolamenduko tresnei buruzko txosten teknikoak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen funtzionamendu-eremuan, eta lurralde-antolamenduaren eta lurzoruari eta hirigintzaren arloetako legeriak organo horiei esleitzen dizkien gainerako egitekoak betetzea.

e) Idazkaritza eta laguntza teknikoa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordeari.

f) Gobernu Kontseiluak hartu behar dituen proposamenak egitea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean Eusko Jaurlaritzari esleitutako egitekoei dagokienez.

g) Udalplan Informazio Geografikoko Sistema, Lurralde eta Hirigintza Jasangarritasunaren Adierazleak eta Plangintza Orokorren Inbentarioa sustatu, landu eta zabaltzea.



h) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zeharkako gaiak eta, bereziki, genero-ikuspegia sartzea lurralde-antolamenduko, paisaiako eta hirigintzako tresnetan.

i) Plangintzaren Euskal Erregistroa kudeatzea.

4.– Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari dagokio, halaber, lurralde-informazioaren esparruan, hauek egitea:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko oinarrizko kartografia ofiziala egitea eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegiturari bidaltzea, Euskadiko azpiegitura kartografiko eta geodesikoa mantentzen dela kontrolatuz.

b) Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren eta www.geo.euskadi.eus geoatariaren zuzendaritza tekniko eta koordinazioa gauzatzea, Euskadiko lurraldeari buruzko informazio geografikoaren eta kalitatezko geozerbitzuen irispidea, eskuragarritasuna eta ustiapena erraztu eta bultzatzeko.

c) Arau kartografikoak eta Plan Kartografikoa egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikorako kartografia eta informazio geografikoa planifikatzeko eta antolatzekeo tresnak diren aldetik.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Erregistro Kartografikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofiziala kudeatzea.

e) Idazkaritza eta laguntza tekniko ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Informazio Geografikoa Koordinatzeko Batzordeari.

f) Eskura dauden informazio, teknologia, zehaztapen eta zerbitzu geografikoak zabaltu eta sustatzea, Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren zerbitzuak eta informazio geografikoa erabili eta ustiatzea bultzatzeko.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko oinarrizko kartografia ofizialaren arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailari dagozkion eginkizunak betetzea, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren V. kapituluaren arabera.



2. ATALA

ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA

11. artikulua. – Etxebizitza Sailburuordetza.

1.– Etxebizitza Sailburuordetzak jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzen ditu:

- a) Etxebizitza.
- b) Etxebizitzari lotutako lurzorua eta urbanizazioa.
- c) Babes publikoko etxebizitzetarako bizitegi-eremuei lotutako plangintza.
- d) Arkitektura, eraikingintza, jasangarritasuna, efizientzia energetikoa eta kalitatea eraikuntzan.
- e) Hiri-birgaitzearen sustapena.
- f) Irisgarritasunaren sustapena.
- g) Hiri-berroneratzearen plangintza, antolamendua eta kudeaketa.
- h) Etxebizitzaren eta etxebizitzak birgaitzearen arloko finantza- eta dirulaguntza-neurriak.
- i) Hiria berroneratzeko proiektuetan sartutako eraikinen birgaitzearen sustapena.

2.– Etxebizitza Sailburuordetzak egiteko hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikulua oro har esleitzen dizkionez gain:

- a) Etxebizitzaren arloko politika publikoen plangintza estrategikoa, herritarren parte-hartzearen sustapena, koordinazioa, kudeaketa operatiboa, gauzatzea eta ebaluazioa egitea.
- b) Jasangarritasuna sustatzea, eraikingintzaren eta urbanizazioaren garapena bideratzeko elementu gisa.
- c) Irisgarritasuna bultzatu eta sustatzea.
- d) Hiria birgaitzeko politiken sustapen eta kudeaketa operatiboko programak, araudiak eta jarduerak bultzatzea.



- e) Babes publikoko etxebizitzaren kalifikazioa aldatzea –Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 11. artikuluan 5. apartatuan dago aipatuta–.
- f) Adjudikazio-prozedura orokorretatik kanpo uztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sustatutako alokairu-programetan sartuta dauden babes publikoko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta etxebizitza libreak, norbanakoak salbuestea halako etxebizitza edo bizitokiak eskuratzeko ezarrita dauden baldintzak betetzetik, eta etxebizitza horiek zuzenean adjudikatzea, araudian ezarritako moduan.
- g) Etxebizitza bat ordezkoko etxebizitzatzat jotzea, gerora sortutako arrazoiengatik eta aldi baterako kalifikazioarekin, eta ordezkoko etxebizitzaren erabilera duten babes publikoko etxebizitzaren adjudikazio-prozedura baztertu eta norbanakoak salbuestea halako etxebizitzak eskuratzeko ezarrita dauden baldintzak betetzetik.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak erosiko dituen babes publikoko etxebizitzak saltzeko eskaintzak onartzea eta etxebizitza libreak erostea babes publikoko etxebizitza gisa kalifikatzeko, ondarearen arloan indarrean dagoen legediaren arabera.
- i) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80. artikuluan eta Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 18. artikuluan aurreikusitako baimen-prozedurak ebaztea.
- j) Dirulaguntzak emateko espedienteak ebaztea, izapideak eta kudeaketa hierarkikoki mendekoa den organo edo entitate batek egiten dituenean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- k) Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzak koordinatu, antolatu eta zuzentzea, Etxebizitza Sailburuordetzaren mende badaude organikoki, kalterik egin gabe zuzendarien mendekotasun funtzionalari.
- l) Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen erregelamendu bidezko garapen osoa bultzatzea.
- m) Hiri-berroneratzea sustatu eta bultzatzea.



3.– Etxebizitza Sailburuordetzak bere gain hartuko ditu «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (Visesa)» eta «Alokabide SA» Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sozietateak eta «Sestao Berri 2010 SA» partaidetzazko sozietatea sailari atxikitzearen ondoriozko eskumenak.

4.– Etxebizitza Sailburuordetzaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza, Auzoak Birgaitzeko eta Berroneratzeko Zuzendaritza eta Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzak.

12. artikulua. – Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza.

1.– Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak sailburuordetzaren jardun-arlo hauetan garatzen ditu bere egitekoak:

- a) Etxebizitzari lotutako lurzorua eta urbanizazioa.
- b) Babes publikoko etxebizitzetarako bizitegi-eremuei lotutako plangintza.
- c) Babes publikoko etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak eraikitzea.
- d) Arkitektura, eraikingintza, jasangarritasuna, efizientzia energetikoa eta kalitatea eraikuntzan.
- e) Irisgarritasuna sustatzea eraikingintzan eta hiri-ingurunean.

2.– Arlo horietan, egiteko hauek izango ditu Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak, dekretu honen 6. artikulua oro har esleitzen dizkionez gain:

- a) Hiri-antolamenduko eta lurzoruko tresnen izapidetzea, eta, hala badagokio, lanketa koordinatu eta kontrolatzea, eta horien gauzatzea kudeatzea, Etxebizitza Sailburuordetzaren eskumenen esparruan.
- b) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80. artikuluan eta Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 18. artikuluan aurreikusitako baimen-prozedurak izapidetzea.
- c) Pertsona fisiko eta juridikoekin eta administrazio publikoekin protokolo orokorrak eta hitzarmenak negoziatzea, eta horiek idatzi, izapidetu eta jarraitzea, babes publikoko



etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeko eta ondare arkitektonikoa berreskuratzeko lurzorua lortzeko, hirigintza-antolamendua eta -kudeaketa egiteko.

d) Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean araututako lurzoru-ondare publikoan integratutako lurzorua administratzea, lege horretan aurreikusitakoaren esparruan, eta lurzoruaren inbentario espezifikoa egin, antolatu eta kontrolatzea.

e) Informazio geografikoko sistemak garatu, eguneratu eta mantentzea, non babes publikoko etxebizitzaren hirigintza-esparru eta -sustapenak identifikatuko diren, Euskadiko DEAREN esparruan, Zerbitzu Zuzendaritzarekin eta Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzarekin koordinatuta.

f) Sailak garatutako jardueren eta beste sail batzuek agindutako jardueren ondoriozko desjabetze-espedienteak izapidetzea, eta ordezkio bizitokiak esleitzea, Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzekin koordinatuta.

g) Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzen egitekoak koordinatzea, Nahitaezko Desjabetzeko lurralde-epaimahaiei eta Lurzorua Balioesteko Batzorde Teknikoari dagokienez.

h) Sailak, bere egitekoak betez eta Ogasun eta Finantza Sailarekin lankidetzan, parte hartzen duen ondare-eragiketei lotutako higiezinaren balorazio teknikoak egitea, baita higiezinaren beste balorazio batzuk egitea edo horiek egiten laguntzea ere, sail horrek eskatuta.

i) Sustapen publikoko eremuak urbanizatzeko obrak eta sailaren zuzeneko sustapeneko babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak eraikitzeako obrak planifikatu, programatu, kudeatu eta kontrolatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan aurreikusitako gutxieneko bizigarritasun-baldintzen printzipioak betez, etxebizitza, espazio eta lurralde irisgarriak, inklusiboak, jasangarriak, seguruak eta indarkeria matxistarik gabekoak sustatuko dira, sozialki integratzaileak, zaintzak erraztuko dituztenak eta zerbitzuak, baliabideak eta azpiegiturak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko aukera erraztuko dutenak, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian xedatutakoarekin bat etorriz.



- j) Sailak sustatutako babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak eraikitze eta konpontzeko udal-lizentziak eta baimenak lortzeko urratsak kudeatzea.
- k) Babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak zuzteneko sustapenean eta sustapen publikoko eremuen urbanizazioan proiektuak idaztea eta obrak gainbegiratu, zuzendu eta ikuskatzea, barne hartuta, bi kasuetan, obra-proiektuen onespenez tekniko eta obra horien harrera egin arteko egikaritzaren jarraipen eta kontrola.
- l) Sailak sustatutako babes publikoko etxebizitzak sustapen itunduei buruzko proiektuak aztertzea eta horiei buruzko aholkularitza tekniko ematea, bai eta, hala badagokio, sustapen horietako obren kudeaketa, kontrola eta jarraipen tekniko egitea ere.
- m) Sailaren zuzteneko sustapeneko babes publikoko etxebizitzak kalifikazioak ematea, haiek deskalifikatzea, baita eskubideak indargabetzea eta espedienteak birgaitzea ere, hala dagokionean, eta etxebizitza horiek aldatzeko, hobetzeko eta eraberritzeko obrak baimentzea, kalifikazioa emandakoan.
- n) Eraikuntzaren eta urbanizazioaren azterketa, ebaluazioa eta kontrola egitea, bai eta eraikuntza-kalitatea antolatzea, sustatu eta egiaztatzea ere, etxebizitzak eraikitzean eta lotutako urbanizazio-obretan.
- ñ) Kalitatearen, jasagarritasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren sistema integratuak sustatzea eraikuntzaren sektorean, hargatik eragotzi gabe, azken kasu horretan, arlo horretan eskumena duten organoen eskumenak.
- o) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-entitate eta -laborategien erantzukizunpeko adierazpenak erregistratu eta kontrolatzea, horiei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta arlo horretako lanak, entseguak eta ikuskapenak egitea.
- p) Proiektuak gainbegiratzeko Bulego gisa jardutea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailei eragiten dieten eraikuntza-obren harreraren kontrol tekniko egitea, baldin eta sailek hala eskatzen badute eta ez badute proiektuak gainbegiratzeko berariazko zerbitzurik.
- q) Euskal Autonomia Erkidegoa Eraikuntza Ikuskarpen Teknikoen Erregistroa kudeatzea.
- r) Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari laguntzea.
- s) Etxebizitzaren eta eraikuntzaren arloko araudi tekniko lantzea.



t) Batetik arkitektura, eraikuntza, urbanizazioa eta birgaitze jasagarriak eta bestetik efizientzia energetikoa eta eraikuntzaren kalitatea sustatu, ikertu, bultzatu, hedatu eta zabaltzea, lankidetzan arituz administrazio publikoetako beste sail eta organo batzuekin, profesionalekin, erakundeekin eta elkarteekin, publikoak zein pribatuak izan.

13. artikulua. – Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

1.– Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak sailburuordetzaren jardun-arlo hauetan garatzen ditu bere egitekoak:

- a) Etxebizitza-politikaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa.
- b) Etxebizitza-politikaren finantza-kudeaketa.
- c) Etxebizitzaren arloko finantza- eta dirulaguntza-neurriak.
